TXATXARRO GAZTE ELKARTEKO BARNE ARAUDIA

ELKARTEARENA OROKORREAN

1. artikulua

TXATXARRO GAZTE ELKARTEA, indarrean dagoen legeriaren arabera sortutakoa, Elkartearen Estatuto, Barne Araudi hau eta aplikagarriak diren arau guztien arabera zuzenduko da.

2. artikulua

Elkartearen anagrama eta logotipoa honako hauek izango dira:

BAZKIDEAK.

3. artikulua

Espresuki eskatu eta 14 urte baino gehiago dituzten pertsona guztiak sar daitezke elkartean, estatutu sozialek eta araudi honek agintzen dutenaren arabera.

18 urtetik beherakoek gurasoen baimena eduki beharko dute.

4. artikulua

Bazkide izatearen eskaera bakoitza Zuzendaritza Batzordean aztertu egingo da, eskaerari txosten positiboa edo negatiboa emanez. Txosten negatiboak ematerakoan, arrazoiak zehaztu egin beharko dira eta eskatzaileari hamar eguneko epea eman beharko zaio ezezkoaren aurka bere burua defendatzeko.

5. artikulua

Bazkide berria onartu ondoren, idazkariak elkarteko bazkide liburuan alta emango dio.

6. artikulua

Zuzendaritza Batzordeak, urtero, ekitaldi horretan eman diren bazkideen alta eta bajen berri emango du Batzar Orokorrean.

BAZKIDE IZATEAREN AMAIERA.

7. artikulua

Bazkideek edozein momentutan eska dezakete bere borondatezko baja elkartean. Eskaera idatziz helarazi beharko da eta Zuzendaritza Batzordeak, bileran, zuzenean tramitatuko du bere baja.

8. Artikulua

Elkarteak bazkide bati arrazoi hauegatik eman diezaioke baja elkartean:

- Zuzendaritza Batzordearen iritziz, estatutu edo barne araudiaren hauste larria dagoenean.
- Bazkideak nahita elkartearen helburuak galerazten dituenean.
- Bere jarrera gizarte printzipioen aurka joaten denean edota elkartearen irudia kaltetzen duenean.

9. artikulua

Edonola ere, kaleratze espedienteak Zuzendaritza-Batzordean eztabaidatu beharko dira, interesatuaren audientzia bermatuz.

Zuzendaritza Batzordeak egindako txostenaren berrestetzearen edo ukatzearen ardura Batzar Orokorrarena izango da, baldin eta kaleratze mozioak bertaratutako bazkideen 2/3ko babesa lortzen badu.

ZUZENDARITZA BATZORDEA.

10. artikulua

Zuzendaritza Batzordeak ohiko moduan gutxienez hiruhilabetean behin bilduko da, eta ez ohiko moduan behar diren aldi guztietan lehendakariaren edo bere kideen ⅓ eskatzerakoan.

11. artikulua

Quoruma egon ahal izateko Zuzendaritza Batzordearen bileretan gutxienez kideen erdia gei bat joan behar dira.

12. artikulua

Elkartearen beharren arabera, Zuzendaritza Batzordeak elkartearen zereginetara bokal berriak inkorporatu ditzake Batzar Nagusiak berretsi arte behin-behineko moduan lan egingo dutelarik.

BARNE ARAUDIAREN ALDAKETA

13. artikulua

Barne araudi honen aldaketa Zuzendaritza Batzordearen edo bazkideen 1/4ren ekimenaren bitartez egin daiteke.

14. artikulua

Nolanahi ere, aldaketa aurrera eraman ahal izateko arrazoi horretarako deitu den Ez Ohiko Batzar Nagusian bertaratu diren bazkide erdien baiezko bozka behar izango da.

KUOTAK

15. artikulua. URTEKO KUOTA

Elkarteak bere jarduerak garatu ahal izateko bazkideak, Zuzendaritza Batzordeak erabakitako eta Batzar Orokorrak onartutako, urteko kuota bat ordaindu beharko dute.

Kuotaren ordainketan ez da ez erantzukizun zibileko segururik ez istripu-asegururik sartzen.

16. Artikulua. JARDUEREN KUOTAK

Aurreko artikuluari kalterik egin gabe, elkartearen jarduerak garatu ahal izateko bazkideak eta, bere kasuan, bazkide ez direnak kuota bat ordaindu beharko dute elkarteak antolatzen dituen jardueretan parte hartzeko.

Kopurua zein den eta ordaintzeko epea Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du kasu bakoitzean.

ELKARTEAREN JARDUERAK

17. artikulua. Jardueren izadia eta jarduera Nagusia.

Elkartearen sorrera bultzatu zuen filosofia beti nabari geratu behar da jarduera-egutegia egiterakoan eta beraren garapenean.

Nahiz eta beste jarduera osagarriak eskaini ahal izan, elkartearen jarduera nagusia mendi irteerena izango da.

Jarduerak izaera librea daukate, ez dira lehiakorrak eta parte hartzaile bakoitzaren erronka pertsonala bat da soilik. Bere ibilbidea ezinbesteko justifikatutako arrazoiengatik izan ezik errespetatu beharrekoa izango da.

Elkarteak antolatutako jardueretako parte-hartzaile guztiek natura errespetatu behar izango dute eta ingurumenean kalteak saihestuko dituzte.

EGUTEGIA.

18. artikulua. Jarduera egutegiaren erabakitzea

Jarduera egutegia Zuzendaritza-Batzordeak proposatuko du eta bera Zuzendaritza Batzordeak espreski deitutako bi batzarretan onartuko da, bertaratutakoen gehiangoarengatik.

Iraileko lehenengo hamabostaldian ospatzen den Batzar Orokorrean Irailetik Abendu arteko (bi hilabeteak barne) jardueren egutegia erabakiko da.

Urtarrilak 20a baino lehenago ospatzen den Batzar Orokorrean Urtarriletik Abuzturako (bi hilabeteak barne) jardueren egutegia erabakiko da.

Aipatutako batzar hauetan bazkideak jarduerak proposatu ahal izango dituzte.

Erabakitzen den jarduera bakoitzerako arduradun bat izendatuko da.

19. artikulua. Egutegiaren Aldaketa.

Jardueren egutegiaren aldaketak, justifikatutako kasuetan, Zuzendaritza Batzordeari proposatu beharko dira eta Batzordeak, egutegi aldaketak eragiten dien aldeei entzun ondoren, proposamenaren bideragarritasunari buruz erabakiko du.

20. artikulua. Jardueren Publizitatea .

Ihardueretako egutegia eta, beraz, bere deialdia eta ezaugarriak, elkarteko www.txatxarro.com web-orrian argitaratuko da.

Deialdia sare sozialen bidez egin ahal izango da ere.

BESTELAKOAK

21. artikulua. Segurtasun jarraibideei kasu egiteko beharra.

Elkartearen jardueren partaideak, jarduераren arduradunaren jarraibideak jarraitu behar dituzte, batez ere ibilbidearen arabera beharrezkoa den segurtasun eta zuhurtasun gaietan.

22. artikulua. Jardueratik Kaleratzea.

Zuzendaritza Batzordeak edo berak izendatutako arduradunak, jardueratik kanpo utzi dezake, jarrera egokia ez duen, legea urratzen duen, barne araudi urratzen duen edo antolatzaileengatik jasotako aginduak betetzen ez duen edonor.

23. artikulua. Debekuak.

Elkartearen izenean Zuzendaritza Batzordeak aurretik onartu gabeko jarduerak egitea debekatuta dago.

24. artikulua. Erantzukizun Zibileko Asegurua.

Elkarteak antolatutako jardueretan nahigabe egindako kalte materialak ordaintzeko hirugarrenen aurkako Erantzukizun Zibileko Asegurua dauka.

Elkartea, Elkarteko edozein jardueretan, bazkide batek hirugarren bati egindako kalteez ez da arduratzen, pertsona bakoitzaren ardura delarik.

Artikulua 25. Istipu Aseguru eza.

Elkarteak istripu asegururik ez dauka, beraz, parte hartzaileek izan edo egin ditzaketen istripuetaz ez da erantzule egiten.

Federazio Lizentziaren edo istripu aseguruaren lortzea partaide bakoitzari dagokio.

Artikulua 26. Erantzukizunen salbuestea.

Jardueren parte-hartzaileak edozein istriputatik ondorioztatutako erantzukizunegatik Elkartea, Zuzendaritza-Batzordea eta jardueren antolaketarekin lotutako edozein pertsona, salbuesten du.

Gainera lehen aipatutako guztiak jardueretan parte hartzeagatik osasun arrazoiengatik gerta litekeen kalteez eta edozein objektu pertsonalen lapurreta, galera edo beste egoerengatik gerta litezkeen urraketa edo galeraz salbuesten ditu ere.